

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

2457

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 22koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, 2025eko maiatzaren 7ko Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez ezartzen baitira gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko 2025. urtean gehienez emango diren diru-kopuruak, zehazten baitira laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2025. urterako dagokion aurrekontu-muga.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikulua xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bidez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Era horretako akats bat aurkitu da 2025eko maiatzaren 16ko EHAAn (91. zenbakia) argitaratu zen 2025eko maiatzaren 7ko Aginduan, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarenean eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarenean, zeinaren bidez ezartzen baitira gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko 2025. urtean gehienez emango diren diru-kopuruak, zehazten baitira laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2025. urterako dagokion aurrekontu-muga. Akats hori ikusirik, zuzendu egin da.

Euskarazko eta gaztelaniazko argitalpenaren 2025/2087 (14/16) orrialdean, II. eranskinean,

Hau dioen lekuan:

Bergara	166.132,00	0,00	166.132,00
Berrobi	5.417,00	62.330,00	67.747,00

Hau esan behar du:

Bergara	166.132,00	62.330,00	228.462,00
Berrobi	5.417,00	0,00	5.417,00

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 22a.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.